

Balorezko proposamena

Gure enpresa, kafetegi eta liburutegi bat da, biak batera. Txoko desberdinak izango ditu, mahaiak eta aulkiak, sofa edo puff txikiak, "chill out" bezalako eremuak... Eremu hauek, jendea elkar ezagutzeko eta denbora pasatzeko prestatuta daude. Publiko osoari ateak irekita egon arren, sozialki arazoak dituztenei, baztertuta sentitzen direnei edota bakarrik sentitzen direnentzako oso egokia dela uste dugu, adibidez, alargunak, kanpotik etorritakoak...

Guk, helburua betetzen laguntzeko, ekintza desberdinak prestatuko ditugu, horietako batzuk honako hauek izan daitezke:

- Hitzaldi desberdinak arlo desberdinei buruz hitz egiten
- Kuadroak margoztu
- Buztinezko tailerra
- Kontziertu lasaiak
- Muss txapelketak
- Yoga

Nahiz eta derrigorrezkoa ez izan ekintza hauetara joatea edota parte hartzea, guk parte hartzera bultzatuko edota animatuko diegu eraginkorragoa izateko eta gainera ondo pasatzeko eta lagunak egiteko.

Hauetaz gain, bertan lokalean mahai jokoak, kartak, partxisa, liburuak... eta beste hainbat gauza egongo dira haien kabuz jolastu eta sozializatu ahal izateko.

Bestalde, badaude kasuak non pertsonak nahiago izaten duten edo gehiago laguntzen dieten animaliak, eta horien bitartez gutxinaka sozializatzen diren. Beraz, hau kontuan izanda, lokal horretan beste eremu edo espazio bat izango dugu, non bertan katuak aurkituko diren. Animalia hauek erakunde desberdinetatik lortuko ditugu, hauekin lan eginez eta kontaktuan jarriz, bai animalia eta bai pertsonen laguntza eskeiniko diegula uste dugu, izan ere, animalia hauek adoptatzeko aukera egongo da beti ere guk eskatuko ditugun kondizioak betetzen badira eta animalia horri bitzitza egokia eta merezi duena emango badio.

Lokal horretan, gutaz gain, hau da, sortu eta antolatzen dugunez gain, gizarte hezkuntza edo gizarteratze ikasi duten pertsonak ere aurkituko dira, beti arlo horretako profesional bat egoteko eta ekintzetan gehiago lagundu ahal izateko. Egunerokotasunean lanean, arlo horretako 2 profesional egongo dira, hala ere, ekintzak antolatzen ditugunean eta jende gehiago egongo den kasuan, beste 2 kontratatuko ditugu.

